

BAZKALDU BAINO LEHEN MERKATURA

Mediku kontsultatik atera direnean, Naia, Markel eta aita merkatura joan dira. Azokak kalitatezko elikagai freskoak erosteko aukera ematen die etxetik gertu. Asteburu honetan, etxean geratuko dira lan handia dutelako, Markelek gainera atsedena hartu behar du.

1. Baratzerako 2kg-ko konposta zakua erosi dute. Naia eta Markel eztabaidan hasi dira, merkatuko baskulak zer neurtzen duen garbi ez baitute. Zer neurtzen du merkatuko baskulak?
 - A. Materiak hartzen duen espazioa.
 - B. Masaren eta bolumenaren arteko erlazioa.
 - C. Gorputz batek duen materia kantitatea.
 - D. Masa eta espazioaren arteko erlazioa.

2. Etxera iritsi bezain laster, zaporetako jogurtak izozkailuan sartu dituzte. Horrela fresko-fresko jango dituzte arratsaldean izozki baten moduan. Zer aldaketa mota jasan dute jogurtek?
 - A. Aldaketa fisiko itzulgarria.
 - B. Aldaketa kimikoa.
 - C. Aldaketa fisiko itzulezina.
 - D. Aldaketa fisiko eta kimikoa.

3. Adierazi kasu hauetako bakoitzean zein den bertan dagoen energia mota. Idatzi 1etik 5era dagokion zenbakia zutabeak erlazionatzeko.

11. Adierazi kasu hauetako bakoitzean zein den bertan dagoen energia mota. Idatzi 1etik 5era dagokion zenbakia zutabeak erlazionatzeko.

		Zenbakia	ENERGIA
Garbigailua			(1) Mekanikoa
Pilaz dabilen irratia			(2) Kimikoa
Eskuko zukugailua			(3) Elektrikoa
Pilarik gabeko kalkulagailua			(4) Eolikoa
Belaontzia			(5) Eguzki-energia

4. Energia modu arduratsuan erabili behar dela gogoratu die Naiaren aita. Sailkatu inguruan dituzten baliabideak eta osatu ezazu taula behean dituzun elementuak dagokion zutabean idatziz.

Gasolina - Eguzkia - Ura - Gas naturala - Petrolioia - Haizea

ENERGI ITURRI BERRIZTAGARRIAK	ENERGI ITURRI BERRIZTAEZINAK

BAZKALDU ONDOREN...

Bazkaldu ondoren etxeko lanen banaketa egin dute. Naiari lorategia txukuntzea egokitu zaio eta landareak ureztatzea. Aitak trastelekua txukunduko du eta Markelek askaria prestatuko du.

6. Haizeak zaborrak ekarri ditu lorategira. Naiak guztiak bildu eta bakoitza dagokion zakarrontzira bota du.

1 Egunkari papera 	2 Plastikozko poltsa 	3 Hostoak 	4 Ogi puskak 
5 Oilasko hezurrak 	6 Aluminiozko papera 	7 Edari lata 	8 Beirazko botila 

Jarri zakarrontzi bakoitzean sailkatu behar diren objektuen zenbakia edo zenbakiak (1etik 8ra).

				
Zenbakiak				

7. Landareek ura eta gatz mineralak xurgatu behar dituzte elikagaiak ekoizteko. Zer ataletatik xurgatzen dute ura eta gatz minerala landareek?
- A. Hostoetatik.
 - B. Zurtoinetik.
 - C. Sustraietatik.
 - D. Enborretik.
8. Lorategiko landare gehienak angiospermak dira. Talde honetako ezaugarri bat kolore biziko lore ikusgarriak dituztela da. Zertan lagun ditzake landareak ezaugarri honek?
- A. Polinizazioa errazten duten animaliak erakartzen.
 - B. Neguko hotza hobeki jasaten.
 - C. Hiriko lorategiak neguan apaintzen.
 - D. A, B eta C okerrak dira.
9. Lorategian, Naia tximeleta bati begira liluratuta gelditu da. Adierazi X batez tximeleten inguruko ondorengo esaldiak egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Artropodoak dira.		
Ez dira arrautzen bidez jaiotzen, hau da, bibiparoak dira.		
Hasieran beldarrak dira eta ondoren zetazko larba bat (krisalida) sortzen dute tximeleta bihurtu arte.		
Sei hego eta lau hanka dituzte.		

10. Atzo euria egin zuen eta lorategian putzu bat sortu zen. Gaur eguzkitsu dago eta putzua lehortu da. Zer egoera aldaketa erlazionatuta dago gertatutakoarekin?
- A. Urtzea.
 - B. Lurruntzea.
 - C. Kondentsatzea.
 - D. Sublimazioa.
11. Ondoren, Naia zuhaitzean pausatuta zegoen txori bati begira egon da denbora luzean. Zer ezaugarrik definitzen dituzte hegaztiak?
- A. Ornodunak dira, lumak dituzte eta hortzak dituzte.
 - B. Mokoak dute, lumak dituzte eta brankien bidez arnasten dute.
 - C. Mokoak dute, bibiparoak dira eta biriken bidez arnasten dute.
 - D. Ornodunak dira, obiparoak dira eta mokoak dute.
12. Aitak, trastelekua txukuntzen ari dela, aspaldian galdutako "palanka" aurkitu du. Zer da palanka?
- A. Makina sinplea.
 - B. Makina konposatua.
 - C. Operadore makina.
 - D. Engranaje mota bat.
13. Trastelekuan, familiako argazkia zapaltzen duen kutxa zahar eta astun bat aurkitu du. Zer aukeratan erabili behar da indar gutxien kutxa altxatzeko?
- A. A aukeran.
 - B. B aukeran.
 - C. Bi aukeretan berdin.
 - D. Ez bata ezta bestea ere, ez dira aukera erabilgarriak.

